

IGNAZIO LOIOLAKOA ETA FRANTZISKO XABIERKOA LAGUNAK ETA ADISKIDEAK JAUNARENGAN

1. – Ignazio Loiolakoa zauritua Iruñean.

Ignaziok bere *Autobiografia* hasten du oroitzuz nola izan zen zauritua hiri bateko “gotorleku-gaztelu batean non armada frantziarrak erasotzen ari ziren”. Ez du hiriaren izena aipatzen, baina historiagatik badakigu Iruñea zela. Erasoaldi hau 1521.go maiatzaren 20an gertatu zen. Ignaziok 30 urte zituen, Frantzisko Xabierrek 15 eta bere amarekin bizi zen Xabierko gazteluan. Frantziar aldean Migel eta Joan borrokatzen dira, Frantziskoren anaiak; eta beraien lehengusu bat, Zuastiko Esteban kapitain gaztea. Gaztelar aldean, Ignaziok eta beretarrek gaztelua defenditzen dute sutsu eta gutxi izanik. Frantziar artilleriak botatako burdinezko bola batek eskuineko anka hautsi zion eta ezkerrekoa zauritua utzi. Laster errenditu zen gaztelua. Garaileek oso jator tratatu zuten zauritua, eta hamabi egunetan, larrizko sendaketak egin eta gero, Zuastiko Esteban kapitainak zortzi lagunekin eraman zuen bere Zuastiko Jauregira, eta gero, esku-ohetilan, Larraungo bailaran barrena, Loiolako bere dorretxera. Berton ebakuntza egin zioten ukabilak estutuz anestesia bakarrarekin. Ignaziok bere bizitza osoan eskuineko ankaren herrendurarekin bizi behar izan zuen.

Frantzisko Xabierren anaiak etxeratu dira. Xabierrek humanitateak ikasi ditu eta ez du nahi armen bidea jarraitu. Ama eta anaiak bat datoz, Parisa ikastera joatea erabakitzen du. 19 urte dauzka. Dagoeneko gizon hezia eta osoa da, oinazean heldua. 1525.go abuztuaren bukaeran guztiei agur esanda, eta zaldi gainean, betiko utzi zuen bere etxea. Urriaren 1ean Parisa iritsi zen eta Santa Barbara Ikastetxe Nagusian ostatu osoa hartu zuen, eta berton, Sorbonako Unibertsitate ondoan, hamaika urte igaro zituen. Bere adineko ikasle batekin, Pedro Fabro izenez, saboiarra, adiskidetasun bikaina izan zuen; logela bera partekatzen zuelarik.

2.- Ignazio Loiolakoa eta Frantzisko Xabierkoa elkarrekin Parisen.

Ikasturte bat falta zuen Xabierrek Filosofian Maisu gradua eskuratzeko, eta irakasle katedra erdiesteko. 1529. urtea zen eta 23 urte zituen. San Barbara Ikastetxeko kale zaratatsu eta hurbiletatik, arreta eman zion handik, behin baino gehiagotan, ibiltzen zen ikasle heldu samar eta nahikoa herren batek. Fabrok eta beste ikasle batzuek esaten diote 38 urteko gipuzkoarra dela, borrokalari sutsu izandakoa, Iruñean zauritua, konbertitu eta penitentea Montserraten eta Manresan, Jerusalemenean erromes, Henaresko Alkalan eta Salamankan espetxeratua. Ondoko Monteagudoko Ikastetxera joaten da eskolara; etxe partikular batean ostatu hartuta. Bere janaria eskean lortzen omen du kalean eta limosna eskatzen omen du eskolak ordaintzeko. Igande eta jai egunetan Kartujara jotzen du beste gazte batzuekin batera otoitz egiteko, aitortu eta jaunartzeko eta emateko meditazioak, *Gogojardunak* deiturikoak.

3. – Logelakideak San Barbara Ikastetxean

Pedro Fabro, oso atsegina zenez, erraz lerratu zen Ignazioren ideia eta ekintzetara. Pedrok, eskupruloso izanik, Ignaziorengan lasaitasuna eta pakea aurkitu zituen. Berarekin joaten zen otoitz egitera Kartujara. Baina Frantzisko Xabier naparra oso bestelakoa zen. Manuel Texeirak, Frantzisko Xabier lehen biografia idatzi zuena, honela dio: Xabier egon zen Ignaziorekin Pedro Fabroekin baino gogorrago eta zailago”. Beste aldetik, bere katedra lortzeagatik pozarekin erdian, bere ama hil zen Xabierko gazteluan 1529.go uztailean. Etxeko ekonomia behera zihoan eta honek Frantzisko Xabierren kontuetan eragin handia izan zuen. Kasualitatez edo plan jakin baten arabera, egun batez Ignazio joan zen Santa Barbara Ikastetxera, ordaindutako ikasle bezala, izena ematera. Ez zioten eragozpenik ipini. Frantzisko Xabier eta Pedro Fabroren logela bera eman zioten. Ignaziok Filosofia lehen kurtsoan eman zuen izena.

Filosofia Maisuak, Peñako Juan, Xabierren eta Fabroren irakasle izandakoa, ikusten zuen Ignaziok ez zuela nahikoa oinarri gaiaren zenbait arlotan. Agian Frantzisko Xabierrek eta Fabrok laguntza eman ahal zioten. Xabierrek nahiago izan zuen laguntza bakarrik bere adiskide Fabrok ematea. Ignazio, begirada sakonekoa izanik, ohartu zen Xabier Maisuaren arazo ekonomikotan zegoela, iadanik Filosofia katedradun zelarik. Ignaziok, bere ongileen diruarekin, hainbat ikasle behartsuri laguntzen die karitatez Xabierren eskoletara joan daitezten. Horrela, zeharka bada ere, familiaren aldetik jasotzen ez zuen dirua irabazten zuen. Naparrak ez zuen guztiz ulertzen bere logelakide arrikutsu eta tematiaren maniobra zorrotza; eta nekoso eta astuna gertatzen zitzaion Ignaziorekin logela eta mahaia partekatzea, sarritan elkarri begiratu eta hitz egin gabe.

Astiro doa Ignazioren lan pedagogiko eta iradokitzaille. Taktiko eta teknikoki Frantzisko Xabier sarean sartzen ari da. Ignazio, 38 urtekoa, herren eta ikasketetan atzeratua; 23 urteko irakasle goiztiar eta disdiratzaile, atleta eta erakargarri baten aurrean galtzaile ateratzeko faboritua da. Baina Jaungoikoaren eta Fabroren laguntzarekin jarraitzen du hurbiltze atsegin eta iraunkorra den estrategiarekin. Etorkizun eta planei buruz hitz egiten dute edozein ikaslek bezala. Xabierrek beti aipatzen ditu anbizio handiko proiektuak, goi kargu eta titulu garrantzitsuak. Ignaziok, hitz egin baino gehiago, entzun egiten du, eta tonu insinuante eta tentuz ebanjelioaren txatala aipatzen du: **“Zertarako nahi du gizakiak mundu guztia irabaztea arima galtzen badu?”** (Mt 16,26). Baina Xabier urruti dago, baita iragatz-ezin ere; eta txantxetan hartzen du, kanpotik bederen. Juan Polancok, Xabierren eta Ignazioren laguna, dio: *“Xabier Maisua ez zen Ignazioren oso jarraitzaile gauza espiritualetan”*. Eta beste batean idatzi zuen: *“Ignaziori entzun diot esaten bere eskuetatik pasa den moldatzeko pastarik zailena Frantzisko Xabier gaztearena izan zela”*. Gogorra izan zen guda. Bost urte luze hurbiltzeko eta kontuz ibiltzeko, otoi eta sakrifizioarekin eramanda.

4.- Montmartren zin-hitzak. Jesulagunak Elizaren zerbitzuan.

Jaungoikoaren grazia Xabierren larru latzean joan da zuloa egiten eta baldintzarik gabe errenditu egiten da. Ignazio eta bere lagunekin, Montmartreko muinora igotzen dira Ixil-ixilik, eta Martirien Andra Mariko kaperan pobretasun, garbitasun eta Jerusalem joateko zin-hitzak egiten dituzte. Laster, 1534.go udan, *Gogojardunak* egiten ditu, Ignazioren galderei erantzun erabakiorrak emanez: *zer egin dut Kristogatik, zer egiten dut Kristogatik, zer egin behar dut Kristogatik?* (GJ 53) Xabierrek ikusi du zer egin zezakeen Jainkoaren aintza handienerako. **Bizi eta zerbitzatu nahi dio Jesusi, Kapitain nagusi eta Jauna, “berarekin, bera bezala eta pozik”**. Erromara doaz, eta Venezian apaizten dira. Erromara iritsita, Ignaziok, Paulo III aita santuak eskatuta, onartzen du Indiara misiolariak igortzea portugaldarrekin. Misiolarietako bat gaixotzen da eta Xabierrek hartzen du bere tokia. Bi lagun eta adiskide handiak, Ignazio eta Xabier, banatzen dira betiko. Xabier hilko da 1552.go abenduaren 3ko egunsentian, 46 urte zituela, Sancian irlan, Txinaren parean, hamar urteko misio nekoso pasata. Ignazio Erroman hilko da lau urteren buruan, 1556.go Uztailaren 31ren egunsentian, 65 urterekin. Biak Gregorio XV aita santuak kanonizatu zituen 1622.go martxoaren 12an. Pedro Fabro, lagun eta adiskidea, Frantzisko aita santuak kanonizatua izan da.

5.- Ondorio bezala. Xabierrek bere bizitza osoan eskertu egin zuen Ignazioren adiskidetasuna.

Ignaziok “beste ni” bezala hartzen zuen. Xabierrek “nire arimaren aita” deitzen zion. Parisen 1535. go martxoan idatzitako eskutitz batean eta bere anaiari egindakoa, Joan Azpilluetakoa kapitaina, Obanosa ezkondua, horrela dio: *“Nahi dut zuk jakitea argi eta garbi zenbat mesede egin didan Jaunak ezagutzeagatik Ignazio Maisua eta nire bizitzan ezin izango diot eskertu, asko zor diodalako; askotan diruz eta adiskidez lagundu didalako nire beharrianetan, baita lagun txarregandik aldentzeagatik ere, nik, nire esperientzia gutxiagatik, ezagutzen ez nituenak”*.

A. Francisco Javier Kortabarria, sj.
San Frantzisko Xabierkoaren Santutegiko Elkarte
Xabier (Nafarroa)